

Heri Aldizkaria

Otamotz

1997ko azaroa 29. alea

Buzkantza
lehiaketa-
ren berri


Eskalada
taldea
rokodro-
mo eske

Gazteak
Euska-
raokeyan



ESKOLA KIROLEKO GEHIGARRIA

Harro gaude
zuri hain
automobil
aseguru osoa
eskaintzeaz



SEGUROS LAGUNARO
ASEGURUAK



Argazkia 1960ko uztailaren 11an eginda dago.

Zumarragako parrokoiko tripleen koruak Igeldora egin zueneko txangoan aterata dago.

Argazkia Luis Ormazabalek utzitakoa da.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga, Oñati) **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Lanbr.a

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52




Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

LIBURUJENDIA

GANBARA

Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45




EUSKARAOKEA ZUMARRAGAN!!!

HOTZARI AURRE EGINEZ, **ZUMARRAGAKO** PLAZAN GAZTETXO ETA HELDU ASKO BILDUZEN ABENDUAREN 3AN, **IXIAR OREXAK** ETA **AITOR FURUNDARENAK** AURKEZTEN DUTEN **EUSKARAOKEA** IKUSI ETA ENTZUTERA.

HERRIAN MAKINA BAT ARTISTA, DANTZARI ETA ABESLARI BIKAIN DAGOELA ARGI ETA GARBI ERAKUTSI ZUTEN IKASTETXE DESBERDINETAKO NESKA-MUTILEK.

ZUMARRAGAN GERTATUTAKOIA IKUSTEKO AUKERA, HILAREN 15ETIK ZORA BITARTEAN **ETBN** IZANGO DUGU.



MAIALEN MEDIAVILLA

X GUSTURA IBILI AL ZARA EUSKARAOKEAN?

BAI, OSO ONDO PASATU DUT.

X ASKO ENTSAIATU AL DUZU AURRETIK?

BAI, LAGUNEKIN ARITU NAIZ ENTSIAITZEN.

X ASTELEHENEKO SAIOKO IRABAZLEA IZAN ZARA, ZER OPARITU DIZUTE?

EUSKARAOKEKO KAMISETA BAT EMAN DIDATE.

X ZEINEK IRAKATSI DIZU EUSKARAOKEAN NOLA KANTATU?

NIK ETA NIRE LAGUNEK BAGENEKIEN AURRETIK KANTUAN.

X NORIK ERABAKI DITU KANTATU BEHARREKO ABESTIAK, ZUEK ALA EUSKARAOKEKOAK?

MAJSUAK ESANDAKO ABESTIAK ABESTU DITUGU.

X NOLA EGIN DA ABESLARI ETA DANTZARTEN AUKERAKETA?

ZOKETA EGIN DUGU.

X URDURI EGONGO ZINEN EZTA?

EZ, LASAI EGON NAIZ, ASKO GUSTATZEN ZAIDALAKO DANTZATZEA ETA KANTATZEA.

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLEKO II. GEHIGARRIA



*Hauxe da aurtengo eskola kiroleko azken gehigarria. Izan ere Santa Lutzi jaiak eta eguberriak direla eta ez da eskola kiroleko ihardunaldirik izango. **TXIKIMOTZ**ek opor motzak hartuko ditu, baina datorren urtean zuek kirol ekintzari jarraipena ematen diozuen heinean, hasiko da berriro ere zuek guztiok larunbata goizetan egindakoaren berri ematen. Bitartean ondo izan eta turroi gutxi jan, bestela zailtasunak izango dituzue korrika egi-terako orduan.*

TXIKIMOTZ

FUTBOLEKO EMAITZAK

BENJAMIN MAILA

ARETO FUTBOLA (97-11-22)

Haztegi E - D.Agirre 1-1

Haztegi A - La Salle C 5-2

Haztegi D - Gainzuri B 4-8

(Andoni Biain 3 golekin goleatzaile nagusia)

Haztegi C - Haztegi D 1-1

D.Agirre B- Gainzuri C 18-2

L.Ama E - Haztegi B 8-3

(Aitor Iturrioz 7 golekin goleatzaile nagusia)

INFANTIL MAILA

Futbola. NESKAK. (1.taldea) (97-11-22)

L.Ama B - Olazabal B 2 - 5

Haztegi A - La Salle C 3 - 4

La Salle B (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-La Salle C	4	4	0	0	12
2.-Olazabal B	3	2	0	1	6
3.-Haztegi A	3	1	1	1	4
4.-La Salle B	3	0	0	3	0
5.-L.Ama B	3	0	1	1	1

KADETE MAILA

Futbola. NESKAK. (97-11-22)

Iparragirre - La Salle 2 - 1

Haztegi - Olazabal 6 - 1

L. Ama (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi	4	4	0	0	12
2.-L.Ama	4	3	0	1	9
3.-Iparragirre	4	1	1	2	4
4.-La Salle	4	1	0	3	3
5.-Olazabal	4	0	1	3	1

ARETO FUTBOLA (97-11-29)

Haztegi B - La Salle C 3-8 (David Castro eta Nabil Elmessori hiruna golekin partiduko goleatzaile nagusiak)

Haztegi C - La Salle D 6-6

(Aritz Jimenez 3 golekin partiduko goleatzaile nagusia)

Haztegi D - La Salle B 12-3

Haztegi E - La Salle A 4-4

INFANTIL MAILA


Futbola. NESKAK. (2.taldea) (97-11-22)


Haztegi B - Olazabal A 1 - 1

L.Ama A - La Salle A 13 - 1

Iparragirre (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-L.Ama A	4	3	0	1	9
2.-Haztegi B	3	2	1	0	7
3.-Olazabal A	3	1	1	1	4
4.-Iparragirre	3	1	0	2	3
5.-La Salle A	3	0	0	3	0





FUTBOLEKO EMAITZAK

(97-11-29)

INFANTIL MAILA

Futbola. NESKAK. (1.taldea)

La Salle B - L.Ama B	0 - 12
Olazabal B - Haztegi A	4 - 0
La Salle C (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-La Salle C	4	4	0	0	12
2.-Olazabal B	4	3	0	1	9
3.-Haztegi A	4	1	1	2	4
4.-L.Ama B	4	1	1	1	3
5.-La Salle B	4	0	0	3	0

INFANTIL MAILA

Futbola. NESKAK. (2.taldea)

Iparragirre - Haztegi B	6 - 7
Olazabal - La Salle A	7 - 1
L.Ama A (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi B	4	3	1	0	10
2.-L.Ama A	4	3	0	1	9
3.-Olazabal A	4	2	1	1	7
4.-Iparragirre	4	1	0	3	3
5.-La Salle A	4	0	0	3	0

KADETE MAILA

Futbola. NESKAK.


Haztegi - L.Ama	4 - 3
Iparragirre - Olazabal	1 - 1
La Salle (Atsedena)	

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi	5	5	0	0	15
2.-L.Ama	5	3	0	2	9
3.-Iparragirre	5	1	2	2	5
4.-La Salle	4	1	0	3	3
5.-Olazabal	5	0	2	3	2

TXIKIMOTZ

MIKEL RODRIGUEZ:

Astean sei egunetan entrenatzen dut, egunean batezbeste bi ordu ta erdiz egiten dut korrikan



HERRIA: ZUMARRAGA

ADINA: 17 URTE

TALDEA: GOIERRI GARAIA

GARAIPENAK: GIPUZKOAKO TXAPEL-DUNA 3.000 METROTAN.

GIPUZKOAKO TXAPEL-DUNA 1.500 METROKO OZTOPO LASTERKETAN.

GIPUZKOAKO TXAPEL-DUNA KROSEAN.

EUSKADIKO TXAPEL-DUNORDEA 3.000 METROTAN ETA 1.500 METROKO OZTOPO LASTERKETAN.

NAHIZ ETA NI ARITZEN NAIZEN ESPEZIALITATEAN EZ ARITU, HORBILTASUNARENGATIK GUSTUKOEN DITUDAN KORRIKALARIAK MARTIN FIZ ETA DIEGO GARZIA DIRA.

Noiztik zabilta atletismoan?

10-11 urte nituenetik, OHoko 5. edo 6. mailan hasi nintzen honetan.

Zein espezialitatetan hartzen duzu parte?

Gehienbat krosean, batez ere denboraldi hasieran, baina gero pistan ere ibiltzen naiz 1.500, 3.000 eta aurten 5.000 metrotan ere bai.

Asko entrenatzen al duzu?

Bai, egia esateko bai. Normalean astean sei egunetan aritzen naiz entrenatzen eta egunean batezbeste bi ordu ta erdiko saioak egiten ditut.

Gogorra egiten al zaizu horrenbeste entrenatzea?

Bai, nahiko gogorra egiten zait. Batez ere eguraldiaren-gatik eta beste batzuetan gogo faltarengatik. Neguan gogorragoa izaten da baina udan ere oporrak direla eta asko kostatzen da entrenatzen hastea.

Lagunekin irtekeko astirik izaten al duzu?

Bai, lagunekin irteten naiz, baina dena den asko zaindu behar izaten dut neure burua ezin baitut alkoholik eta honelakorik edan, batez ere denboraldiak

irauten duen bitartean.

Zein asmo dituzu hemendik aurrera?

Hurrengo urtean IVEF egiteko asmoa daukat eta honek atletismoarekin nolabaiteko zer ikusia duenez, ez dit oztopatuko aurretiazko korrika egiteko garaian. Gainera nire ustez, egiten dudana baino gehiago egin dezaket eta hobetzeko esperantza badaukat behintzat. Gainera, urtetik urtera mailaz igotzean ematen den saltoa geroz eta handiagoa da eta ondorioz, derrigorrezkoa da hobetzea.

Eskola kirolean ibili al zinen atletismoan?

Ez, ez nintzen atletismoan aritu, orduan ez zegoen orain beste aukera, gehienetan futbolearen aritzen ginen.

Zein aholku emango zenieke eskola kirolean dabiltzan gaztetxoiei?

Batez ere esango nieke asko entrenatu behar dela, baina ez nolahi, hau da, entrenamenduak ondo planifikatuta egin behar dira, bakoitzak duen adinaren eta gaitasunaren arabera.



Zer duzu gustukoen Santa Lutzitan?



Natalio Parra

Antolaketa da gehien gustatzen zaidana. Ikusteko gauza asko dago eta bai postuak eta baita inguruak ere oso ondo antolatuta egoten dira. Kaleko giroa ere ederra izaten da.



Edurne Holgado

Gehien gustatzen zaidana, egun horretan izaten den kaleko giroa da. Barazki feria ere gustura ikusten dut, baina onena giroa da.



Mariaje eta Nerea

Bezperan hasten da giroa eta hurrengo egun osoan ere izaten den giro hori dugu gustukoen. Goizean 9ak aldera irteten gara etxetik, feria ikusteko. Aurten gainera, igandeko buzkantza lehiaketarekin festa luzatu da.




Miguel Aranzadi

Egun horretan eskaintzen den guztia gustatzen zait. Pilota partiduak oso gogoko ditut. Buzkantza lehiaketa aurreratzea oso ondo iruditu zait Santa Lutzitan egunean bertan eginda, gehienok ez geniolako arreta gehiegi egiten.



Josune Mendizabal

Taloak jatea gustatzen zait. Giroa ere gustuko dut, oso giro polita izaten da. Zaldiak ikustea ere atsegin dut, makinaria ez zait horrenbeste gustatzen. Goizean goiz irteten naiz kale-
ra, gauean berandu erretiratzeko.



Lierni, Leire eta Nagore

Animaliak ikustea gustatzen zaigu gehinbat. Zaldiak ditugu gustukoen. Barazki feria animaliena baino gutxiago gustatzen zaigu. Goizean nahiko goiz irteten gara kalera animaliak ikusteko.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen-honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETxu

Jesus Mari Debak, eskuratu zuen Santa Lutzitako buzkantza saria

Aurkezpen onenaren saria Fernando Salegi zumarragarrarentzat

Hamalau partehartzailek izena eman dute aritu diren XV. Buzkantza Lehiaketan, Zumarragako lau aritu dira: Angel Aránburu harategia, Aranburu harategia, Alfonso Arratibel harategia eta Fernando Salegi harategia. Aurten lehen aldiz, Santa Lutz eguna baino astebete lehenago burutu da eta jendearen aldetik erantzun ona jaso du.

Lehiaketan, ardi odolez eta ardi gantzaz egindako odolkiak hartu dira kontuan. Ardi odolari behiarena nahastuz egin zitezkeen, edo behi odola hutsik izanez ere bai. Lehiaketan odolkgile industrialek soilik hartu zezaketela parte da.

Epaimahaikideek, itxura, usaina, zaporea eta osaketa fisiko-kimikoa hartu zuten kontutan epaia ematerako orduan eta baldintza hauek kontutan hartu ondoren, zortzi epaimahaikideek, Jesus Mari Deba, ormaiztegiarrik egindako buzkantzak saritu zituzten.

Lehiaketako epaimahaia, sukaldari eta aditu ezagunez osatua egon zen. Busca Agirre sendia, Juan Jose Lapitz, Jose Juan Castillo, Patxi Mendizabal, Alberto Elorza, Pedro Ruiz Elizondo, Juan Manuel Garmendia eta Luis Juan Unanuak osatu zuten epaimahia.

Jesus Mari Deba irabazleak, aurten goarekin hirugarren aldiz jarraian irabazi du Santa Lutzitako Buzkantza Lehiaketa. 1991. eta 1993. urteetan bigarren saria lortu zuen eta 1986an, hirugarren saria. Lehiaketa irabazteagatik, 50.000 pezeta, prentsan iragarria, plaka eta diploma jaso ditu.

Bigarren saria, Legazpiko Urcelay harategiarentzat izan zen. Honek,



1991eta 1993. urteetan lehen saria lortu zuen. 1992an bigarren saria eta 1994an, hirugarren saria. Bestalde, Ormaiztegiko buzkantza lehiaketan ere lehen saria lortu zuen 1995an. Aurten bigarren egiteagatik 50.000 pezetako saria jaso du.

Azkenik, 30.000 pezetako sari berezi bat ere bazegoen aurkezpen onenarentzat eta hau, herrian geratu zen, Fernando Salegi zumarragarrak lortu baitzuen.

1986. urtetik aurrera Busca Isusiren omenez

1916ko irailaren 7an jaio eta 1986ko uztailaren 16an hil zen Busca Isusi, Zumarragak izan duen idazle garrantzitsuenetako bat. Euskal sukaldaritzan ospe handia bereganatu zuen, Aranzadi Zientzi Elkarteko lehendakariordea izatera heldu zelarik.

Bere lan profesioaletan, Martzillan sortutako lehen barazki enpresako fundatzailea izan zen. Liburu, artikulu eta hitzaldietan, beti agertu zuen gastronomiarekiko ardura.

Santa Lutzitako buzkantza lehiaketako orainarteko irabazleak:

- ✓1983: **LUIS EGIBURU** (urretxuarra)
- ✓1984,1985,1986,1988 eta 1992an: **IÑAKI CAMPOS** (ormaiztegiarra)
- ✓1987:**M. DOLORES ARRUABARRENA** (zumarragarra)
- ✓1989: **VICTORIANO INSAUSTI** (zumarragarra)
- ✓1990: **ERRATZU BEHEKO BASERRIA** (urretxuarra)
- ✓1991 eta 1993an **PEDRO URCELAY** (legazpiarra)
- ✓1994: **ALFONSO ARRATIBEL** (zumarragarra)
- ✓1995,1996 eta 1997an: **JESUS MARI DEBA** (ormaiztegiarra)



Jesus Mari Deba, jasotako sariarekin

Jesus Mari Deba: Lehiaketa honek ospea ematen dizu

Hiru urtetan jarraian irabazteak badu meritua. Pozik egoteko modukoa izango da zalantzarik gabe.

Bai,bai. Ez dakit suertea edo suertea baino zeozer gehiago den baina hiru urtetan segidan irabaztea nahiko zaila da bai. Pozik nago.

Aurten irabaztea espero zenuen?

Bueno nik, atzo probatu nituen nik egindako buzkantzak eta banekien azkena behintzat ez nintzela izango. Irabaztea zaila ikusten nuen baina tira, maila ona egon omen da eta guztien artean nire buzkantzak saritzeak ilusioa ematen du.

Bakoitzak buzkantzak egiteko modu bat du. Ba al dute sekreturik zure buzkantzek?

Sekreturik ez dago. Niri, zail xamarra egiten zait buzkantza hauek egitea, odolkiak txerrinakin egiten ohituak baigau. Nahiko natural egiten ditugu eta puntu polita hartuta diogula pentsatzen dut. Lehen egiten ziren posturan egiten jarraitzen dugu. Baina sekreturik ez dago.

Santa Lutzitako Buzkantza Lehia-ketako irabazlea izateak ospea ekarriko du ezta?

Bai. Behin txapeldun irtenez gero gehiago saltzen da. Ospe pixka bat ere hartzen duzu eta diferentzia badago bai, jendeak gehiago ezagutzen zaitu eta saltzeko momentuan ikaragarri nabaritzen da.

Buzkantza nola egin

Buzkantza egiteko honako tresnak eta osagaiak behar dira.

Tresnak: Lapikoa, haiztoa eta ontzi handi bat.


Osagaiak: Ardi gantza, kipula, oreanoa, perrexila, porruak, pipermina, gatza eta ardi hestea.

Ardi gantza ondo txikitu ondoren lapikoa jarri eta sutan urtu arte utzi behar da. Ardi gantza urtzen denean, lapikora kipula bota, eta egosten jarri behar da. Haiztoa hartu eta oreanoa, perrexila, porruak eta ardi gantzaren baesarea gordina txikitu behar dira, gatza eta pipermin pixka bat ere bota behar da. Orain, ontzi handia ardiaren odolez beteko dugu eta aurrez aipaturiko osagai guztiak ardiaren odolarekin nahastu beharko dira.

Osagai guztiak nahastu ondoren, ardiaren hestea den tutu luze batean pasatuko da dena. Ez da komeni ahaztea hestea betetzeko behar diren osagaiak zapaldu egin behar direla. Ondoren, heste guztiak osagaiez beteta ditugunean, soka bat erabiliz, korapiloak egingo dizkiogu nahi dugun neurrian, era honetan buzkantzaren itxura hartuko du. Korapilatze lanak bukatu ondoren, buzkantzak su txikian, ordu erdiz egosten jarriko ditugu.

Jon Maia

Bertsolari bezala finalean sartzea beharrezkoa nuen



Jon Maia Urretxun jaio eta zazpi urte zituela Zumaiara joan zen bizitzera. Hango ikastolan, Joanito Dorronsoro irakaslearen laguntzarekin, bertsolari jaio gabe pixkanaka pixkanaka bertsolari egin zen. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean sartzea lortu du, puntuaketaren arabera hirugarren gainera. Egun hogeitabost urte ditu eta Gasteizen amaitzear dituen Euskal Filologiako ikasketak burutzen ari da.

Nongotarra da Jon Maia, hemen dagoenean urretxuarra eta Zumaiara dagoenean zumaiarra?

(Barreak) Bueno, ni sekula ez naiz inongoa sentitu. Badakit erantzun erraza dela hori baina nik beti euskalduna naizela esaten dut. Zumaiarra bai, dagokion neurrian sentitzen naiz eta urretxuarra, dagokion neurrian ere bai.

Txikitako zer oroitzapen dituzu Urretxun?

Gogoan dut niretzat oso gogorra izan zela hemendik joatea. Negar asko egin nuen, pena handia sentitu nuen. Hemendik joan eta urte batzuetara oraindik ere asteburuetan etortzen nintzen. Familia hemen daukat eta etortzen naiz. Gogoan dut txikitik Lourdesko Ama ikastolara joaten nintzela. Hemengo kaleetan ibiltzen naizenean, nire kaleak ere badirela sentitzen dut. Bertako jendearekin harremana oraindik ere mantentzen dut.


Nola ikusi duzu gaur Urretxu?

Aldatuta ikusten dut. Adibidez, ni jaio nintzen plaza, Gernikako Arbola plaza, aldatuta dago. Astakeria handia iruditzen zait frontoia bota izana. Gas-

teiztik Zumaiara joatean astero ikusten dut Urretxu eta aldatuta dago. Iruditzen zait piska bat, puskatuta dagoela. Lehen, nukleo bat ikusten nuen, plaza, aldapa... orain, berriz, aldatuta ikusten dut. Bestela, betiko moduan.

Parte hartu duten 42 bertsolarietatik, lehenengo zortzien artean sailkatu eta finalean arituko zara. Zer sentitzen da?

Finalean sartzea pozgarria da niretzat. Behar nuen zer-bait da eta haren bila nengibilen. Oso inportantea da bilatzea bestela kasualidadez lortzea oso zaila da. Txapelketa eskaparatea da. Beti ere, erreferentzia bat. Ni gauza askotan ibili naiz azken urteotan eta distorsionatuta ikusten nuen nire bertsolari izaera. Nik egiten ditudan gauza guztiak bertsolari izateari esker dira. Horregatik berrindartu behar nuen nire bertsolari izaera. Nire ilusioa bertsolari izatea eta bertsoak kantatzea da eta orduan, finalean sartzeak nolabaiteko berma ematen du. Aintzakotzat hartzen zaituzte. Ondo etorriko zait. Zure izena hor ikusteak poza ematen du. Bertsolaritzaren historian zehar finalean egon direnak ikusten dituzu eta orain, zu hor zaudela ikusteak poza ematen du.



Niretzat, prozesu bat boro-biltzea da. Garai berri baten hasiera ere izan daitekeela pentsatzen dut.

Egia al da Euskitzek, Peñagarikanok, Telleriak eta Enbeitak txapelketari uko egiteagatik sartu zarela zu beste batzuen artean txapelketan?

Egia da bai. Hauek leku bat zeukaten txapelketan, Gi-puzkoako Txapelketan eginiko lanagatik. Ni, Gipuzkoako Txapelketan, lehenbiziko kanporaketan kalera joan nintzen eta ez nintzen Euskal Herrikoan, hasierako 42en artean sartzen. Gipuzkoar batek utziz gero ni izango nintzen lehena sartzen eta azkenean hala gertatu da. Suplente izatetik finalean sartzea bapen-tsa, sekulako alaitasuna da. Euskitzek garaiz deitu zidan parte ez zuela hartuko esanez eta ondorioz txapelketa prestatzeko denbora izan dut.

Irazuk, Amurizaren errima liburua erabili duela esan du txapelketa

prestatzeko. Ze prestaketa mota burutu duzue?

Amurizaren liburua uste dut gehinok erabili dugula. Nik, liburua kaleratu zen egunean erosi nuen. Igor Elortza eta biok errima zerrendak ordenagailuz egin, eta gure errima jokuak zabaltzen ibili gara. Txapelketako ariketak ere asko landu ditugu eta batik bat, oso zentratuta ibili naiz. Apunteak hartu, nire ideiak landu, denbora osoan ideiak hartzen ibili naiz.

Igor Elortzarekin pisuan batera bizitzeak lagundu al dizu?

Bai. Bi urte daramatzagu

“Euskal kulturaren espresiorik indartsuenetakoa da bertsolaritza”

elkarrekin eta bertso gai horietan asko sartzen gara. Gaupasak ere egiten ditugu hizketan. Oso lagun onak gara. Hala ere, Igor, Zazpi eskale diskoa grabatu behar zuela eta lanpetuta ibili da. Bestalde, Asier Otamendi ere etxetik hurbil bizi da eta honekin ere aritu naiz. Entrenatzeaz gain makina bat barre ere egin dugu elkarrekin.

Adituek, Berako kartzelako gaian asko arriskatu eta bertso bikainak bota zenituela diote.

Beran ez nintzen oso gustura sentitu bertsoan. Nerbioso, baldartuta ikusi nuen neure burua eta saio bukaerara, kartzelako gaira zenbagarren egon ninteken

ez nekiela iritsi nintzen. Egaña eta Iturria-garekin aritu nintzen hizketan eta biek arriskatzeko esan zidaten. Hil ala bizi egin nuen eta bizirik atera nintzen. (Barreak)

Bitxikeria moduan, zer egiten duzue kartzelako gaian itxaroten ari zaretela?

“Kamara okulta” delakoarekin grabatzeko modukoa da. Bat pasiatzen, beste aulkian eserita... Normalean saioari buruz hitz egiten dugu. Konfidantza handiagoa duzunarekin hitz egiteko ere aprobeztatzen da nola zoazen jakiteko.

Joanito Dorronsorok, Bertsolari Aldizkarian, txapelketa honek bertsolari bakoitza bere tokian jarriko ote duen galdeztzen zuen. Jarri al du zure ustez?

Ez. Asko bere tokian jarri ditu baina beste asko ez. Txapelketa izatez ez da justoa. Gehiago merezi duten askok ez dute jasotzen ordaina. Egañaren kasuan bai, plazaz plaza ere bera da txapelduna, berak merezi du txapela jaztea. Baina hor daude finaletik kanpo Igor Elortza, Jokin Sorozabal, Aitor Mendiluze eta gehiago eta agian bere lekua ez da hori.

Joxerra Garziak Euskaldunon Egunkarian idatzitako “potofobia” artikuloarekin ados al zaude?

Ados nago baina Joxerrak esan bezala hori beti izan da horrela eta txapelketa jokatu aurretik bagenekien horrela izango zela. Nire ustez akatsak

gehiegi zigortu eta merituak gutxiegi saritzen dira. Epaileek nahiko jarrera segurua hartzen dute. Beran Egañaren kartzelako bertsoek batezbesteko 7'6ko puntuazioa izan zuten. Zer egin behar da orduan 8a ateratzeko?

Muruak adibidez, epai-mahaikideen puntuazioa ikusi ondoren, erreferentzi gabe geratu dela esan du. Ez dakiela zer hartzen den kontuan.

Bai bueno. Nik uste dut badakidala zer puntuatzen duten epaileek eta zer ez. Nire ustez bertsoan ondo egiten duenak normalean aurrera egiten du. Gerta daiteke Murua bezalako bertsolari erregular eta onak, bere ustez ondo kantatuta ere, aurrera ez egitea. Txapelketaren sistemak

“Txapelketan akatsak gehiegi zigortzen dira eta merituak gutxiegi saritu”

eskatzen duena da saioan zehar destakatzea eta puntu mordoska bat lortzea abantaila ateratzeko eta hori zaila da. Txapel-keta ez da justua. Hala ere, uste dut badakidala zer eskatzen duten epaileek.

Bost gazte finalera. Zer esan nahi du horrek?

Ziklo berri bat dator eta txapelketa hau ziklo berri horren isla da. Igual ematen du oso gazteak garela hor gaudenak baina kontuan izan behar da Lizaso 24 urterekin sartu zela lehen finalean eta Peña berriz 25ekin. Guk gainera, aurre-

ko belaunaldiko gazteek baina denbora gehiago daramagu zirkuitoan. Gazte beteranoak gara. Gazteak gara bai, baina esperientzia handikoak. Batez ere, txapelketa asko irentsi behar izan ditugulako. Datozen txapelketak nik uste oso interesgarriak izango direla. Gu helduagoak izango gara eta horrenbeste gazte egoteak, ardura ekarriko digu. Suposatzen dut plazaz-plaza ibiliko garela eta horrek ere ardura ematen du. Bertsolaritzak bere lekua mantentzeko maila ona erakutsi beharko dugu.

Emakumeen presentzia bertso munduan ere aldatu da.

Bertso eskoletan gehien apuntatzen direnak neskak dira. Gero, gauza batengatik edo beste batengatik bidean geratzen dira. Baina bagoaz normalizazioruntz. Txapelketa honek horretarako ere balioko du, Maialen Lujanbio, finalera sartzen den lehen emakumea izango baita.

Iraza finalera disfrutatzera joango omen da. Zu zeu zer asmorekin zoaz?

Bertsotan ondo egitera joan behar dugu. Goatzera ere bai sari bat delako. Kontuan izan behar da kalera joateko arriskurik ez duzula eta horregatik, piska bat arriskatzea merezi du. Galtzeko asko ez daukazu eta azken finean, entzuleari espektakulo pixka bat ema-

tea komeni da.

Finalari begira urduritasunik nabari al da ?

Hamar mila pertsona begira ez dira edozein saiotan egoten. Ikusi egin behar nola erantzuten dugun. Presioa izaten dut baina nik nire buruari jartzen diodana da.

Gaiak zenbaterainoko zerikusia dute bertsoa botatzerako orduan?


Txapelketan gaiak ere zerikusi handia dute. Zortearen arabera dago. Kartzelan, bi gai erabat ezberdinak tokatu ahal zaizkizu zortearen arabera eta hori ez zait gustatzen. Denok gai berarekin trebatzea hobe izango litzateke. Bestalde, gazte asko gaude la ikusita gazteentzako gai gehiago jarriko balitz hobe. Nahiz eta egia den entzuleen artean ere zaharrak badaudela.

Zenbat saio egiten dituzu urtean?

Ez ditut kontatzen baina berrogeita hamarren bat.

Zer iritzi duzu Bertsozale Elkarteaz?

Ez dut harreman handiegirik Gasteizen pasatzen dudalako astea, bileretara joateko kotxerik ez dudalako eta baita ere, azken denbora honetan nire kasa ibili naizelako ere. Baina bertsolaritzaren etorkizuna bideratzeko egokia da eta gu ere talde bezala aurkezteko



edozeinen aurrean ere balio du. Bertsolaritzak jorratu ez dituen bideak zabaltzeko ere bai.

Nola ikusten duzu telebistaren eragina bertsoan?

Bai. Telebistak beti efektu hori du. Telebistak ikututakoari nabari zaio. Guk igarri dugu hori programarik egon ez den tarte honetan. Agian ongi etorri zaio bertsolaritzari bere benetako tamaina zein den ikusteko. Telebistaren efektuaren eraginez asko puztu zen. Hala ere, gaur egungo edozein espektakulok behar du piskat, telebistaren presentzia. Gainera euskal kulturaren espresio indartsuena da bertsolaritza. Jende askori gustatzen zaio bertsoak entzutea eta jende hau ezin da astero frontoirik frontoi ibili. Alde txarrak ere baditu. Jendea idolatratu egiten du, bertso onenak bakarrik ageri dira... Baina tira, telebista guk behar dugu.

Ze moduzko lana egiten dute bertso eskolek?

Nahiko finkatuta daude. Hasieran bertso munduko jende asko mesfidati zegoen gai honekin, bertso eskolak, bertsolariak egiteko fabrikak edo zirela esanez... Bertsolari jaio egin behar zela esaten zen eta hori ez da horrela. Euskaraz dakien edonork egin dezake bertsoan. Norberaren grazia, sakontasuna... hori bai, bakoitzaren izaera jaiotzez jasotzen da baina bertso eskolek emaniko fruitua txapelketa honetan garbi dago. Bost edo sei, agian Egaña ere aritua izango da, hortik atera baikara. Bertsolariak sortzeko oinarri nagusiak dira.

Zer bertsolarirekin da erraza bertsoa botatzea eta zeinek zaila?

Igor Elortza oso ondo ezagutzen dut eta berarekin gustura ibiltzen naiz. Unai Iturriaga-

rekin ere bai, Maialen, Irazu... Bertsolari onekin ere erraza da, Egaña, Sarasua. Zaila, menperatzen ez duzun terrenoan ibiltzea da.

Santa Lutzi bezperako bertso saioa entrenamendu gisa hartuko al duzu?

Bai. Ondo etorriko zait Egañarekin eta Sebastianekin aritzea azkeneko sprint horretan puntu puntuan jartzeko.

Santa Lutzitako bertso saioan dauden lau bertsolari horietatik hiru, lehen hirurak izango ote dira txapelketan?

(Barreak) Hala izango balitz ordainduko nizuke trago bat.

Emostasu musutxue.

(Barreak) Bertsolaritzari esker egin ahal izan dudana gauza bat gehiago da. Zortzi urte daramatzat letrak idazten eta berrogei bat kanta idatzi ditut. Kanta hau zehazki, bi ordutan egindako letra da, edo gutxiago agian. Bestelako proiektuetan ere banabil. Maialen eta bioi eskatu ziguten Basauritik ea elkartuko ginaketen lanari buruzko bertso musikatu emanaldi bat egiteko. Bixente Martinezi ere esan zioten eta hortik sortu zen Mailen Lujanbio, Jon Maia eta Igelaren banda, Oskorriko taldekide batzuekin.

Finalera begira zein da zure pronostikoa?

Andoni Egaña, baina... nork daki?

Bota bertso bat Jon.

Urretxutikan Zumaialdara aspaldi joan nintzela nere burua ikus dezaket Urola trenan bezela zuen estima hutsa neretzat bada nahiko txapela gure bertsoak urretxuarren poza izan daitezela

Honela definitu ditu Jon Maiak esaldi batean finaleko bertsolariak



Andoni Egaña

Maila goreneko aho literatoa, genio bat.

Argazkiak **BERTSOLARI** aldizkariatik hartu dira.



Jesus Mari Irazu

Nortasun bereziko bertsolaria, kontuan hartzeko tipoa.



Unai Iturriaga

Buru argia eta dinamikoa, biharko eguneko pertsonajea.



Sebastian Lizaso

Bertsolari osoa, behar-beharrezkoa den bertsolaria.




Aritz Lopategi

Bertsolari ona, behar adina estimatzen ez dena.




Maialen Lujanbio

Bertsolari petoa, azkarra eta konplexurik gabekoa.



Mikel Mendizabal

Langilea eta tipo fina, berak irabazi du duen tokia.



Aspalditik datorkie eskaladarako zaletasuna, duela urte bete inguru, talde bezala elkartu ziren, eskalada herritarrei ezagutarazi, eta beraiek gustukuen duten kirolean lagunartean aritzeko. Gorantza doan eskalada zaletasun nabarmenari aurre egin ahal izateko, rokodromo baten beharra ikusten dute, herriotan. Guzti honi buruz, Xabi Enrique Askasibarrekin eta Garikoitz Oiarzabalekin egon gara berriketan.

Zenbat lagunek osatzen duzue eskalada taldea?

Batez ere lau lagun ibiltzen gara baina zeharka jende askoren laguntza jasotzen dugu. Geroz eta zaletu gehiago dago

Eskaladarako zaletasuna handitzen ari da

Urretxu-Zumarragan, eta ondorioz, geroz eta lagun gehiago biltzen gara eskalada inguruko giroan.

Noiz elkartu zineten talde bezala?

Guri eskaladarako zaletasuna aspalditik datorkigu, baina esan liteke bakoitza bere kasa ibili dela denbora luzean, azkenean elkartzea erabaki genuen arte.

Hau gutxi gora behera duela urte bete inguru gautatu zen.

Zein helburu lortu nahi zenuten elkartzean?

Gehienbat, eskalatzeko entrenamenduak egiterako garaian bakarrik ez egotea zen hasierako gure asmoa, guztiok aurretik eskaladan ibilitakoak izanda, batak bestearengandik ikastea

ere espero genuen, lagunartean ondo pasatu eta aldi berean norberaren eskalada teknika eta gaitasuna hobetzeko.

Non ibiltzen zarete eskalatzen?

Herrian, entrenatzeko leku egokirik ez dagoenez, geure rokodromoa egin dugu behar bezela entrentatu ahal izateko. Bestela,

Eginora, Araotzera eta Riglos bezalako tokietara joaten gara eskalada mendian bertan egitera.

Zein ekitaldi antolatu dituzue orain arte talde moduan?

Gure kabuz egindako ekitaldi bakarra Gainzurin antolatu genuen eskalada ihardunaldia izan zen, dena den laguntzaile moduan toki askotan ibili gara. Urretxuko festetan antolatutako eskalada txapelketan, Mineralogia astean haurrentzako antolatutako eskalada ekitaldian, Legorretan ere ibili izan gara honelako gauzak antolatzen eta abar.

Rokodromoa eskatzen duzue, nolakoa behar du izan? Zein arazorekin egin duzue topo egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko?

Dagoeneko Urretxuko kirol zinegotziarekin gaiari buruz hitz egiten aritu gara

baino ez dugu erantzun garbirik jaso, oraindik udal bakarrarekin jarri gara harremanetan. Gure asmoa Zumarragako ordezkariarekin hitz egitea da. Hau lortzeko oztoporik handiena, beti gertatu ohi den bezala, ekonomikoa da. Bigarren arazoa eskalada munduan dagoen tabua izango litzateke, eskalada arriskuarekin lotzen baita beti. Hala ere, behar bezala eginez gero, oso kirol segurua da eta neurriak hartuz gero ez luke inongo arriskurik egon behar.

Zer nolako zaletasuna dago herrian?

Herri mailan jendeak uste baino zaletu gehiago dago eskaladaren munduan interesaturik. Guzti hauentzako ez dago toki egokirik entrenatu ahal izateko. Rokodromoa eginez gero, entrenatzeko tokia izateaz gain, jende hasi berriarentzat ikastaroak eta honelakoak antolatu daitezke eta

era honetan afizioa sortu.


Zergatik eskalada eta ez beste kirol bat?

Mendiarekin erlazioa duen kirola delako eta guk betidanik izan dugulako mendi zaletasuna. Gainera, eskalada munduan sortzen den giroa eta honen inguruan mugitzen den jendearekin lotuak sentitzen gara.

Zer behar da edo egin behar da eskalatu ahal izateko?

Batez ere, gogoia eduki

behar da eta diru piska bat ekipoa erosi ahal izateko. Dena den ez da diru asko behar, 100.000 pezetarekin ekipoa osoa erosi daiteke. Lagun artean ibiliz gero denon artean erosi daiteke ekipoa merkeagoa izan dadin. Gainera, eskalada gutxienez bi lagun artean egin beharreko kirola da, bata mendian eskalatzen ari den bitartean besteak sokak eutsi behar dituelako bestea seguru egon dadin.



Eskalada taldeko partaideak beraiek egindako rokodromoetan entrenamendu saioak egiten.



Xabier Chico

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Irakaslea.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Kirolen bat egitea.

✓Kolore bat?

Urdina.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Oparia bada edozein.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Interesgarria den edozein.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Normalean deskantsatzeko.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Konforme nago daukatenarekin.

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Arpegira eta arpegian begietara.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Zinea eta Urretxuri polikiroldegi berri bat.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Irimoko punta.

✓Urretxun ezik non biziko zinateke gustura?

Hondarribian.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?

Nahiko buru gogorra izatea.

✓Bete gabeko amets bat?

Normalean esan ezineko ametsak izaten ditut.

✓Musika entzuteko, dantatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Gehienbat entzuteko.

✓Kantu bat.

Ez naiz oso musika zalea.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Batzuetan bata eta besteetan bestea.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Leialtasuna...

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Familiarengatik.

✓Gaua ala eguna?

Eguna.

✓Lo egiteko zer?

Irratia.

✓Gustoko janari bat?

Patata tortila.

✓Ura, ala...

Momentuaren arabera, baina normalean ura.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Behin betiko saskibaloia utzi behar dudala.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

PUBLIZTATEA

☎ 72 57 75

Lehiaketak

✓ Haurrentzako gabonetako lehiaketak

● Abenduaren 16rarte luzatuko da, **gabonetako IX. Idazlan lehiaketa eta krisma lehiaketa**-rako lanak aurkezteko epea.

✓ Amodiozko gutunen VI. Berrigara lehiaketa

● Lehiaketa honetan 1983an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lan guztiak argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN-A4 orritan eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Lanen luzeera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanetan ez da egilearen datunik jarriko, soilik lema bat, egilearen datuak sobre itxian sartuko dira eta azalean lanean jarri den lema bera jarriko da. Hau bidali, Amodiozko gutunen VI. Berrigara lehiaketa, Jardun elkarte, Masterreka 13, behea 20570 Bergara. Azken eguna urtarrilaren 14an.


1. saria, 75.000 pezeta.
2. saria, 40.000 pezeta.

Literatur lehiaketa

✓ Augustin Zubikarai sariak

● Abenduaren 18an bukatuko da lanak jasotzeko epea. Batueraz zein bizkaieraz idatzitako edozein gai onartuko da, lanak orijinalak, argitaratu gabeak eta lehenago beste lehiaketa batean saritu gabekoa izan behar dute. Narrazio bakoitzeko DIN-A 4ko 10 orrialde gutxienez eta 25 gehienez idatzi ahaliko dira, orrialde bakarrean eta tarte bikoitzean idatz makinatua. 3 ale bidali behar dira azal itxian egilearen aipamenik egin gabe, barruan, aparteko azalean erantsiko dituen egileak bere datuak. Hauek denak helbide honetara bidali edo eraman daiteke: **Ondarroako udala, Udal Euskara Zerbitzua (94-6134344). 48700 Ondarroa.**

1. saria 140.000 pta.
2. saria 100.000 pta
3. saria 85.000 pta



● Ea aurten gonbidatzen nauzun kafe eta ogi zati bat hartzera. **ZORIONAK JAVIER!!!**

● Aurten gogoratu gara, nahiz eta Londonen bizi zaren asko maite zaitugu. We love you! Koadrilakoen partetik, **ZORIONAK JOSU!!!**



Erakusketa

✓ Benigno Albenizen eskulanean erakusketa

● Abenduaren 12tik 21era, Itarte Etxean, egurrez landutako lore sinboloak, gurutzeak, eguzki loreak, ezkutuak eta abar ikusteko aukera izango da.




Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

...baina harroago gurekin hain pozik dauden bezeroak izateaz


KALEBARREN 1 TEL. 72 50 22 ZUMARRAGA



Lagun Aroren 10 aseguratuetatik 9k kalitate/prezio erlaziorik onena dutela uste dute.



Istripuren bat izan duten Lagun Aroren bezeroen %94k azkar eta eraginkortasunez konpondu dutela adierazten dute.



Konpainiaren kaudimen, konfiantza, sendotasun, azkartasun eta berrikuntza mailari dagokionez, Lagun Aroren bezeroek "oso ona" edo "bikaina" erizten diote.